

Noaia!!



Zumarte, Argentinako
Euskal Astean



Larunbatean manifestazioa

Michelin lantegiaren geroa dago jokoan

➤ www.noaia.com ◀
usurbildarron zerbitzura



euskara

zure sekretua

zu munduaren isla zara
ez uste zu ez zarela
zarela dakiagu guk
zuk ahalmena daukazu
mundua edertuko duzu

usurbil

ETUMETA EUSKALTEGIA

Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

943 37 20 01

Udalaren diru laguntzaz

PIAZA MIÑATIAK
www.aek.org
902 36 22 94

aek

Zuen publizitatea hemen

☎ 943 360 321
publizitatea@noaia.com

Albisteak argazkitan !!

Kotxe batek su hartu zuen Atxegalden

Pasa den ostiral goizaldean suak esnatu zituen Atxegaldeko bizilagunak. Auzokide baten ibilgailuak motorreko txispa baten ondorioz su hartu zuen. Bertako bizilagunek ahal zuten moduan ibilgailua albo batean jarri zuten. Eta eskerrak, bestela aparkatuta zeuden gainerako autoak ere kiskaliko baitziren. Autoaz gain, farola bat baino ez zen erre. Ondorioz, inguruko kaleak argirik gabe geratu ziren. Suhiltzaileek sua amatatu eta autoa eraman ostean, erre usaina eta arrasto beltzak baino ez ziren geratzen.



AUTOA SU BETEAN. GOIZALDEKO SEIAK PASATXOTAN GERTATU ZEN ISTRIPIUA ATXEGALDEKO APARKALEKUETAKO BATEAN. EZ ZEN INOR ZAURITU.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
 943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ODOL EMAILEEN BILKURA ORION _____ **5. OR.**

LUR IBARRA BOLEI JOKALARIA _____ **6. OR.**

KIROL PATRONATUAREN ASMOAK _____ **8. OR.**

URRIAREN 11N, ORDUBETEKO LANUZTEA _____ **10. OR.**

MANIFESTAZIOA LASARTE-ORIAN _____ **11. OR.**

OSTIRALEAN, NIKARAGUA HIZPIDE _____ **12. OR.**


ZUMARTEKOAK, ARGENTINAN _____ **19. OR.**



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



AITOR LANDALUZE

Giltza daukagu

Asteburuan “Giltzi”, aurtengo Nafarroa Oinezeko Amaskotarekin egon naiz. Data hurbildu ahala gero eta urduriago dago, dena ondo ateratzea nahi eta herri txikiaren konplexuak janda sentitzen da. Ospakizun handiaren gerturatzeak ahaztu arazi dio orain dela 15 urte zein ederki eta ondo atera zitzairen. Ez hori bakarrik, orduko Nafarroa Oinezek Erentzun ikastolari zer ekarri zion ere ahaztuta du nerbioen eraginez: eraikin eder bat, 15 urte eta gero erabat txikia geratu zaiena, zorionez! Are gehiago, orduko jai horrek Biana herriarentzat, eraikin bat baino baliagarriago den euskara ekarri zuen. Hezkuntza proiektua indartu ahala ikastola zabalduz joan da eta ondorioz euskarak herrian jarrera baikorragoa eta presentzi gehiago lortu du, oraindik ere eskasa den arren.

Berriz ere laguntza behar dute, hazten ari den proiektu batek jarraipen oparoa izan dezan, oztopo asko gainditu behar izan dituzte, han nafar erresumako mugako “azken Plazan”, bakardade sentsazioarekin gehienetan. Laguntzeko Biana, festa egun pasa polit batera gonbidatzen gaitu Giltzik, eta arren! Nire lagunaren osasun men-

talaren mesederako joan zaitezte.

Eguraldiak lagunduko du, “Giltzik” hala ziurtatu dit. Bargotako aztiarekin hitz egin duela, honek bere magia erabili eta lainoek ez omen dutela Ioar mendia zeharkatzetik izango. Ibilbideak mahasti eta zoroen artean eramango gaitu baita industriadetik ere, herriko harresiak zeharkatzen ez dituen arren, segur naiz batek baino gehiagok kale estu horien artean ibiltzeko gogoia izango duela, 800 urteko historia luzeak bere harrietan itsatsirik irakurtzeko: Errege erreginak, printze eta bestek, Amaia liburuaren idazlearen etxea bilatu nahian edota Cesar Borgiaren hilotza.... Pena, ez duzuela uztaila goizeko eguzkiak kale ilun horiek bapatean argi txuri goxo batez nola argitzen dituen ikusiko. Ez eta ilargi beteko gauetan Las Cañas aintzirako Akelarreko Endregoto eta beste sorginen algarak entzungo, gaueko ontzak baratzen ingurutan sumatuko...

Hala ere, hemengo zero zabalaz gozatuko duzue, kilometro pila bat zuen begien aurrean, urrutiko mendiak gertuko olibondoak... denak koadro berean euskararen margoekin apainduak. Ezin plan hobea iganderako.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika!

Eragotzi, inposatzeko

Ez eragotzi, ez inposatu, idatzi zuen Josu Jon Imazek, baina Gipuzkoako herritarren eta zabor errauskailu bat kosta ahala kosta ezarri nahi diguten alderdien arteko gatazka luzean ere ez dirudi PNVko “mitxelin” dimitituaren leloak arrakasta handirik lortu duenik. Izan ere, alderdi horiek kudeatzen dituzten mankomunitateen leloa guztiz kontrakoa da: “Eragotzi inposatzeko”. San Markosko mankomunitate intsumituak bere zaborra beste edonon botatzea eragozten ari dira errauskailua inposatu nahi diotelako. Gogora dezagun, bide batez, inposatu nahi dioten errauskailua haiek kontrolatzen dituzten udalerrietan nahi ez duten berbera dela (...).

San Markosko mankomunitateko gaur egungo kudeatzaileei xantaia egiten diete PNVk eta PSOEk. “Inposatu nahi dizuegun errauskailua onartu ezean, zuen zaborra beste mankomunitateetan bota dezazuen ez dago elkartasunik”, esaten diete. Xelebrea da, benetan, alderdi horiek “elkartasuna” hitzari ematen dioten esanahia: “Ondoko hiru urteetan, gure mankomuni-

tateetan zuen zaborra onartuko dugu, baina ondoren, trukean, Lasartek, Zubietak eta Usurbilek errauskailua eta gure zaborra betiko onartu beharko dituzte”. Horrek ez du zerikusirik elkartasunarekin, hori xantaia da. 25 urtez, Txingudiko zaborra onartu du San Markosek, baina hori “txikikeria” bat omen da, orain behintzat inork gogoratu nahi ez duena. Gainera, trilerokaxkarrenak ere bere egingo ez lituzkeen amarruak darabiltzate: “Dagoeneko Donostialdeko zaborren %50 beste mankomunitateetan botatzen ari da”, diote; praktikan, baina, %20ra ere ez da iritsi (...).

Eta hau guztia gertatzen ari den bitartean, gipuzkoarrok jokoan kanpo gaude. Alderdien arteko ika-mikak komunikabideen bidez jarraitu baino ez dugu egiten. Horren erantzuleak, neurri batean behintzat, herri mugimenduak gara, errauskailuaren kontrako estrategia gehienbat politikoen eskuetan utzi dugulako, politikari horiek nahi bezain “alternatiboak” badira ere.

Errauskailuaren kontrako mugimendua

askotarikoa eta siglen gainekoa izan da. Sekulako indarra eman dio horrek. Gure ustez, egoera zein den ikusita, indar hori mobilizazioen bidez berriz aktibatu egin behar da. Demokraziarik eza begibistakoa den honetan (horra Donostian, Tolosan, Astigarragan, Batzar Nagusietan eta abarretan legez kanpo utzitako zerrendak), auzi hau konpontzeko ezin dugu hauteskundeportzentaiei begira egon. Herritarren protagonismo eta mobilizazioa berreskuratu egin behar da, politikoen xantaia eta inposizioaren kontrako txerto eragingarri bakarra delako.

“Kutsatzen duenak ordaintzen du”, esan ohi digute. “Orduan –erantzun behar diegu–, ordaintzen duenak erabaki dezan”. Herritarrok ordaintzen dugu, beraz, zaborrak nola tratatu behar diren erabakitzea herritarroi dagokigu. Eta herritarrok “Errauskailurik ez” behin baino gehiagotan esan dugu, argi bezain ozen.

Juan Mari Beldarrain, Eguzki

Bukatu dira estropaden San Praixkuak

Estropadei lotutako ospakizunak nagusi izan diren San Praixkuak amaitu dira. Urriko bigarren asteburuak bestelakorik utzi duen arren. Oilasko biltze arrakastatsua beteranoen itzulerarekin, herri kirol desafio ikusgarria aginagarren artean edota diskotekan bihurtutako eliza zaharrean Dj Larrak eskaini zuen emanaldi jendetsua.

Jai Batzordekoek deialdia egina zuten. Erantzuna berriz ezin hobea suertatu zela esan behar. Berrogeitik gora lagun bildu ziren urriaren 12an oilasko biltze saioan. Giro ederra izan zuten. Bertso saio eta gazteen afariaren ostean, Eganen emanaldiak amaiera eman zion egunari frontoian.

Presoak gogoa

Gorritiren showak berriz, hasiera urriaren 13ko egitarauari. Gaztetxo asko ibili zen poni gainean eta txerri txikia harrapatu nahian. Preso eta Errefuxiatuen eguna zenez, ez ziren gutxi izan herri afarian parte hartu zutenak. Gero, ekitaldia izan zen. Trakets-ek frontoian, baina batez ere DJ Larrak eliza zaharrean giro paregabea eskaini zuen. Diskotekako bola,



GORRITIREN SHOWAK KORRIKA BIZIAN JARRI ZITUEN GAZTETXOAK.

argiak... eta denetariko musikarekin jendez gainezka zen eraikin zaharra.

3.866, zenbaki saritua

Baina aginagar batek baino gehiagok indarrak ondo gorde zituen igandeko herri kirol saiorako. Lehia ederra eskaini zuten.

Azken oharra: mariskadaren zozketa-ko zenbaki saritua, 3.866 izan zen.

ARITZ GORRITI

Angula garaia hasi da

Angula harrapatzeko garaia hasi da. EAEn, 1.000tik gora baimen banatuko dituzte lehorrerako eta 80tik gora motorretik aritzeko.

Hori bai, gehienez 1,80 metroko diametroa duten baheak erabili ahal izango dira eta ezingo da harrapatutakoa saldu.

Martxoaren 14an amaituko da ofizialki angula biltzeko garaia.

Igande honetan, Ikur eta Diploma Eguna ospatuko dute Usurbilgo eta Oria Beheko odol emaileek

Oria Beheko odol emaileek, Urtero legez, Ikur eta Diploma Eguna izango dute igande honetan. Orion egingo da ospakizuna eta odol-emate gehien bete dituztenak sarituko dituzte.

Sarituak izango direnen artean badira usurbildarrak. 25 emanaldiatar iritsi diren bost usurbildar daude: Pello Zubeldia, Lourdes Arantzazitztroki, Garbiñe Granados, Julia Jimenez eta Roman Arruti.

40eko kopurura iritsi direnak berriz, bi ditugu: M^a Cruz Huegun

eta Lourdes Kamino.

Aipatzekoa da ez dela hain erraza kopuru horietara iristea. Urte batzuk behar direla odola ematen, izan ere, osasun araudiari jarraituz, emakumeek urtean gehienez hiru aldiz eman dezakete odola eta gizonezkoek, gehienez, lau. Bada euren ahalegina eta borondatea saritzeko garaia.

Igande honetan, Orion bilduko dira Oria Beheko odol emaile denak eta tartean izango dira usurbildarrak. Lehenik, eguerdiko 12:00etan meza izango da San Nikolas elizan. Meza ondoren, leku berean ikur eta diplo-

ma banaketa egingo da. Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, "omenaldi xumea izan-go da, baina merezia, urteetan erakutsi duten esker onaren truke". Ondoren, Orioko hondartzako Aisia-Balea jatetxean emango zaio ospakizunari jarraipena, alkartasun bazkari bat eginez.

Odol Emaileen Elkartetik, era honetan, "esker ona adierazi nahi diegu aipaturiko emaileei bereziki eta emaile guztiei orokorrean, beraien lan isilak ematen dituen fruituak ugariak eta onak baitira".

Lur Ibarra, Leizaran taldeko bolei jokalaria

“Ez gara oso altuak baina esperientzia handiko jokalaria ditugu”

Pasa den asteburuan Logroñon ekin zion Lur Ibarra usurbildarrak Andoaingo Leizaran EHUKo talde kideekin batera boleiboleko denboraldi berriari. Mailaz igo direla kontuan hartuta, aurtengoan lehia bizia izango dela iragartzen du kirolariak. Edozein kasutan, lehen postuei eustea da haien lehentasuna. Gogotsu dira eta prest liga hasteko. Lurren kirol ibilbidea ez da ordea sei urte hauetara mugatzen. Zaletasuna askoz lehenagotik datorkio.

NOAUA! Aurten mailaz igo zarete. Gogor samarra izango dela diozue.

Lur Ibarra. Duela bi urte maila honetatik jaitsi ginen eta urtebete beheko mailan egon ostean, iaz berriz igo ginen. Beraz, berriz hasierako kategorian gaude. Aurtengo denboraldiko partidak zailagoak baina aldi berean politagoak izango dira. Beheko mailan partida batzuk oso errazak izaten baitziren. Orain, gutxienez, erronka handiagoa da eta gogo gehiagorekin gaude.

LUR IBARRA

“Jauzia asko lantzen da boleibolean, baloiak sarea pasa behar baitu; eta besoak, erremateak indartsu egiteko”

N. 2007-2008 denboraldiari aurre egiteko taldeak zer nolako tresnak ditu eskura?

L. I. Hasteko, boleibolean altuerak asko egiten du. Batez ere maila berri



ANDOAINGO LEIZARAN BOLEIBOL TALDEAN DABIL USURBILDAR GAZTEA.

honetan talde altu bat izatea kristoren abantaila da eta guk hori ez dugu. Ez gara oso altuak baina esperientzia askoko jokalaria ditugu, kohesioa eta talde bezala oso ondo aritzen gara, defentsan batez ere.

N. Pilotan eskua edota futboleant hanka lantzen den bezala, zer baliabide, teknika edo estrategia lantzen dira zuen kirol jardunean?

L. I. Erresistentzia eta indarra beste kirol modalitate batzuetan bezala ez da lantzen boleibolean. Gurean, jauzia asko lantzen da, azkenean baloiak sarea pasa behar baitu, eta besoak, erremateak indartsu egiteko. Baita defentsarako lurreko teknikak eta mugimendu oso azkarrak egitea ere.

N. Leizaranek nola amaitu nahiko luke denboraldi hau?

L. I. Helmugari buruz ez dugu hitz egin. Baina kategoria mantentzea dela

uste dut lehen helburua. Pixkanaka partidaz partida ikusten joango gara. Gure ligak duen txarrena da, zortzi talde bakarrik garela, eta egiten dugun liga motza. Txapelketa amaieran, sailkapenaren arabera lehen lau taldeek mailaz igotzeko play off neurketak jokatzen dituzte eta hurrengo lauak jaitsierako play off partidak. Mailaz jaitsi ginen urtean bosgarren postuan gelditu ginen eta jaitsierako play off horretan oso gaizki aritu ginen.

N. Sailkapen erdian egotea beraz, oso arriskutsua izan daiteke.

L. I. Noski. Bi puntutatik goian edo behean egon zaitezke. Horregatik uste dut helburu nagusia mantentzea izango dela. Oso talde gutxi gara. Gipuzkoan gu eta Donostiakoak bakarrik gaude. Hiru talde Santanderren ditugu, Logroñon beste bat eta hiru talde Bizkaian. Autobusez batetik bestera ibiltzen gara.

“Kirolak askatasuna, diziiplina, lagunak ematen dizkizu”

NOAUA! Hogei urterekin hasi zinen boleibolean, baina zure kirol ibilbidea askoz luzeagoa da, ezta?

Lur Ibarra. Zortzi urtetik hogei urtera arte gimnasia erritmikoa egin izan dut. Adin horretara iristean gimnasia erritmikoaren ibilbidea oso zaila da, egunero ordu askoz entrenatu behar baita eta jada hamalau urteko neskekin lehian ari zara. Gainera unibertsitatean hasi nintzen. IVEF egiten ari nintzela hasi nintzen ikasle bezala boleibolean jolasten. Gasteizko talde batean hasi nintzen eta gero, duela hiru urtetik Leizaranen nabil.



LUR IBARRA ETA BERE TALDEKIDEAK DENBORALDI HASIERAN EGINDAKO ARGAZKIAN.

N. Zer da kirolean aurkitzen duzuna eta zer kirolak zuri ematen dizuna?

L. I. Kirola nire bizitzaren ardatza da. Bizitza guztia kirolaren inguruan egin dut. Beti egon naiz ordu pila bat entrenatzen. Kirolak askatasuna, diziiplina, lagunak ematen dizkizu. Dena ematen du.

LUR IBARRA

“Boleibolaz gain, akrosport egiten dut. Gimnasia erritmikoarekin lotuta dago baina akrobaziak egiten dira”

N. Berrero kirolez aldatzeko asmorik ba al duzu?

L. I. Boleibolaz gain, akrosport egiten ari naiz. Beste kirol berri bat da, gure inguruan ez dena ezertxo ere ezagutzen. Gimnasia erritmikoarekin lotuta dago, baina akrobaziak eta taldekako irudiak

egiten dira. Oraingoz erakustaldiak egiten ditugu. Bestela, boleibolean jarraitzeko asmoa dut; talde honetan edota Bizkaia aldean lan egiten dudanez, inguru hartan. Baina hasiera batean hemen jarraitzeko asmoa dut. Eta ez dakit noiz arte.

N. Lana Bizkaian, Andoainean entrenatu, bizi Usurbilen. Herrian talderik ez zegoela eta hasi al zinen Leizaranen?

L. I. Gasteiztik ikasketak amaituta etorri nintzen, etxera bueltan. Aukeran nituen Fortuna taldea Donostian eta Leizaran Andoainean. IVEFen bazen neska bat Leizaranen jolasten zuena eta Andoainera joateko esan zidan. Baiezkoa eman nion. Gainera, Donostian ere banekien giroa ez zela hain ona eta aparkatzeko arazo gehiago zeudenez...

N. Ligako etenaldietan, bestelako txapelketatan parte hartzen duzue?

L. I. Udan kostaldean boleiboleko hainbat torneo antolatzen dira; Laredon... Gutxi baina ahal dugun horretan aritzen gara, oporrak ere hartu behar baitira.

N. Kirolari batek oporrak izaten al ditu ba?

L. I. Kirola gutxiago egiten duzu, baina beste ekintza batzuk edo kirol berriak jorratzen dira.

N. Ikasitakoarekin lotuta, kirolaren zein alderditan egotea nahiko zenuke?

L. I. Prestatzaile fisikoarenean. Berez, ikasketak horra zuzenduta egin ditut. Baina oso lan gutxi dago, eta dagoena batez ere futbolekin. Eta neskak futbolekin ez dugu leku asko. Egun, heziketa fisikoko irakasle gisa lanean nabil.

ARITZ GORRITI _____

Kale nagusia, 10
Tel: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olinpikoa - Gasteiz

LABE-GOXO

Otar-Goxo
EIKASQUIN

Zubiaurrenza, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ZUBIAURRENZA LEBURRI

22

Leopoldo

943361951

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Lontxo Zubiria, udal kirol patronatuko lehendakaria

“Onartu berri dugun araudiarekin, lehentasuna herriko kirol taldeek izango dute”

Ikasturte hasieran osatu zen udal kirol patronatuko zuzendaritza batzordea. Datozen lau urteetan, Lontxo Zubiria (Aralar) izango da patronatuko lehendakaria. Eta lehendakari-orde, Ainara Uribe (EAE-ANV). Eusko Alkartasunak ere izango du ordezkari kirol patronatuaren zuzendaritzan, Ibon Beristain hain zuzen. Urriaren 3an egin zen bileran, kirol instalazioen erabilera zehaztuko duen araudia onartu zen. Lontxo Zubiriak adierazi digunez, aurrerantzean, lehentasuna herriko kirol taldeek izango dute.

Eskubaloiak gora egin du Usurbilen. Baina kiroldegian ere badira beste erabiltzaile batzuk. Orain arte, araudirik ez zegoen eta hori dela eta, arazoak eman dira.

LONTXO ZUBIRIA

“Luze eztabaidatu ondoren, kirol instalazioen erabilpena zehaztuko duen araudia onartu dugu”

Pentsa, eskubaloit taldekoek iaz etxeko partida batzuk kanpoan jokatu behar izan zituzten. Entrenamenduetan, nola edo hala moldatzen



ARAUDI BERRIA KIROL INSTALAZIO GUZTIETARAKO IZANGO DA BALIAGARRI.

ziren baina partidak jokatzeko garaian arazoak izan zituzten. “Arazo horri konponbidea bilatzen ibili gara batzordean”, aitortu digu Lontxo Zubiriak.

Herriko instalazio guztietarako

Luze eztabaidatu ondoren, herriko kirol instalazioen erabilpena zehaztuko duen araudia osatu dute. Hauek dira udal kirol patronatuak ezarri dituen lehentasunak:

- Herriko kluba izatea.
- Ekintza soziala izatea, heziketa mailan bereziki.
- Klubaren jarduna euskaraz izatea.

- Kirolariak Usurbilen erroldatuta egotea.

- Kirolarien kopurua.
- Herrian babes soziala izatea (laguntzaileak, bazkideak...).
- Klubaren antzinatasuna.

Araudi hau kiroldegirako eta herriko gainontzeko instalazioetarako izango da baliagarri.

Beraz, araudi honen arabera, aste-bukaeretan, herriko klubek izango dute lehentasuna; kiroldegian, futbol zelaian nola gainontzeko kirol instalazioetan.

IMANOL UBEDA

Kiroldegiko bazkideen ordezkaria aukeratzeko garaia

Aralar, EA eta EAE-ANVko Udal ordezkariekin batera, udal kirol patronatua beste ordezkari hauekin osatzen da: Josu Aranberri (kirol taldeen ordezkaria), Unai Lataillade (Udarregi ikastolaren ize-nean), Jokin Zubiaur (Oiardo kiroldegiko bazkideen ordezkaria).

Patronatuko bileretan, Iñaki Iurramendi kiroldegiko gerenteak idazkari lanak egiten ditu.

Azaroaren 25ean, bozketa eguna

Kiroldegiko bazkideen ordezkari-tza berritzeko epea zabaldu da.

Urriaren 30a bitartean, bazkideen behin behineko zerrenda ikusgai jarriko da Oiardo kiroldegian. Azaroaren 5ean irekiko da hautagaiak aurkezteko epea eta azaroaren 25ean egingo da botazioa. Kiroldegiko bazkideak direnek dute botoa emateko aukera.

Kiroldegia handitu ala berria egin, eztabaida horri ekin dio patronatuak

Kiroldegia txiki geratzen ari da. Kirol patronatua horren jakitun dira. Kiroldegi berri baten premia al dago? Ala dagoena berritu eta handitu egin beharko litzateke? Honen inguruko eztabaida hasi besterik ez da egin. Baina lehen urrats batzuk eman dira. Lehengo astean, Foru Aldundiko teknikari batekin bildu ziren Iñaki Iurramendi kirol patronatuko geroa eta Lontxo Zubiria patronatuko lehendakaria.

“Lehenik eta behin, beste herrietan zer egin den ikusi nahi dugu”, adierazi digu Zubiriak. Kiroldegi berriak ikusteko hitzordua jarri dute. Oiarzun, Orio, Deba eta Irunen zabaltu dituzten kiroldegiak bisitatu dituzte.

ERABAKIA, UDALARENA

Kirol patronatuak lehen urratsa eman du baina udalak hartuko luke azken erabakia

Horretaz aparte, “diagnostiko bat egin beharko da. Herriak ze bilakaera



DIAGNOSTIKO BAT EGIN NAHI DA ETA HORREN ARABERA ZEHAZTUKO DA KIROLDEGIAREN ETORKIZUNA.

izango duen aurreikusi behar da. Behin informazio hori eskuetan izanda, proiektu bat idatzi beharko litzateke”. Oraindik goiz da esateko baina dagoena berritu eta handituko egingo litzateke edo, aukeran, berri bat egingo litzateke. Baina horiek ez dira egun batetik bestera hartzen diren erabakiak. Lontxo Zubiriak esan digunez, “kirol patronatuak lehen urratsa eman du baina udalak hartuko luke azken erabakia. Beste instituzio batzuen laguntza ere ezinbestekoa izango litzateke”.

“Erronka handia da”, hala esan digu Lontxo Zubiriak. “Batzordean ere gogotsu daude, talde majoa gaude. Jende gaztea dago tartean eta eztabaida honi orain heldu nahi diogu”.

Futbol zelaiko lanak laster amaituko dira

Futbol zelaiari azken ukituak falta zaizkio. Aldagelak bukatzea falta da. Bien bitartean, aldagela probisonalak erabiltzen dituzte. Hilabete bukaera amaituko dituzte falta diren lanak, beranduenik, datorren hilabetean zehar.

Lontxo Zubiriak egun hauetan ikusi duenez, “klubean direktiba gaztea dago, gogoarekin. Aire berri bat eman nahi diote taldeari eta horretan gabilta elkarlanean. Ea era txukunean funtzionatzeko modurik egokiena topatzen dugun”.



“Oso argi dago udal gobernua EAE-ANVk daramala”

Azken asteotan, orriotan, Luismari Ormaetxea EAko zinegotziaren eta Usurbilgo Aralar alderdiaren arteko ika-mikaren lekuko izan gara. Lontxo Zubiriaren ustez, kirol patronatuko kargua hartzeak ez du esan nahi Aralar udal gobernuko kide bihurtu denik.

“Kirol patronatuko lehendakaria naiz baina erabaki pertsonala izan

da. Gogoarekin sentitu nintzen eta horregatik onartu nuen. Herriaren alde lan egiteko eskatu genuen botoa udal hauteskundeetan. Gaizki edo ondo egingo dugu, baina gu horretarako gaude”.

Berak ordezkatzeko duen alderdia udal gobernuko kide den edo ez galde egin diogunean, zera erantzun digu, “oso garbi dago udal gobernua EAE-ANVk daramala. Gu ados gauden gaitan, lan egiteko prest gaude.

Baina udaletxeko gainontzeko alderdiekin ere, elkarlanean aritzeko prest gaude, edozein dela gaia”.

Lontxo Zubiriak esaldi honekin amaitu nahi du azken asteotan piztu den eztabaida: “gu Aralarrekoak ez gara politikatik bizi eta ez gara politikatik biziko. Luismari Ormaetxea berak jakingo du zertan dabilen, nora iritsi nahi duen, eta zeinen edo noren bizkar”.

Ordubeteko lanuztea egin zen urriaren 11n

Duela bi aste izandako atxiloteketei erantzunez, urriaren 11rako LAB sindikatuak deitu zuen mobilizazio egunean ordubeteko lanuzteak izan ziren herriko udaletxe, ikastola eta lantegietan. Hainbat herritarrekin batera, langile eta ikasleak kaxkoko kaleetan barrena manifestatu ziren. Iluntzean berriz, elkarretaratzea izan zen frontoi atzean. Aste hasieran Beasainen atxilotu zuten Asier Imaz mahaikidearekin guztira 23 dira urriaren 4az geroztik atxilotu dituzten Batasunako kideak.

Pasa den urriaren 4an izandako atxiloteten haritik mobilizaziorako dei egin zuen LAB sindikatuak urriaren 11rako. Ikasleak, langileak... Herritar askok lan uztearekin bat egin zuen ordubetez, eguerdiko hamabiak eta ordubata artean.

Langile askok haien lantegi atarrietatik irten ziren manifestaldian. Udaletxeraino hurbildu ziren ordurako bertaratu zirenekin biltzeko. Aipatutako gune horretatik berriz, "Errepresiorik ez! Euskal Herriak hitza eta erabakia" lelopean herriko kaleak zeharkatu zituzten Dema plazaraino. Guztira, berrehun herritar inguruk parte hartu zuten eguerdi aldeko mobilizazioan.



200 HERRITAR INGURUK HARTU ZUEN PARTE URRIAREN 11KO EGUERDIAN EGIN ZEN MANIFESTAZIOAN.

Partehartze handia

Urriaren 4ko operazio poliziala salatze-ko mobilizazioek parte hartze zabala eragin zuten. Hala, udal langileek eta Udarregi ikastolako irakasle eta ikasleek bat egin zuten eguerdiko lanuztearekin. Haiekin batera denda eta taberna askok jaitsi zituzten euren pertsianak. Gauza bera gertatu zen herriko hainbat enpresatan ere; Gara, Agiñako Piperrak, Igepak, Elhuyar, T. Cortes, Ucin, Akaba, Luzuriaga, Savasa, Laborala.

Iluntzerako ere elkarretartzeko deia egin zuten frontoian.

Soto del Realen jarraitzen du Marisa Alejandrok

Bestalde, pasa den asteburuan Jone Goirizelaia abokatuak jakinarazi zuenez, hamazazpi atxilotuetatik hamar kartzelaz aldatu dituzte. Soto del Realeko espetxetik Valdemoro eta Alcala Mecokoetara eramane dituzte. Marisa Alejandro usurbildarrak ordean Soto del Realen jarraitzen du operazio polizial berean atxilotutako beste sei kideekin eta Joseba Alvarez eta Oihana Agirrerekin batera.

ARITZ GORRITI

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

LATAILLADE
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
ITURGINTZA
Ariztiltxo 8. behea - 943 553 548 - 609 888 021

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 - ASTEASU
943 69 68 52 - 620 800 186

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Larunbat honetan manifestazioa egingo da Lasarte-Orian Michelingo langileen geroa dago jokoan

Larunbat honetan, arratsaldeko 18:00etan, Lasarte-Oriako Okendo plazan. Hortik abiatuko da Michelingo langileek deitu duten manifestazioa.

Michelinek talde osoa berregituratu nahi du, ez soilik Lasarte-Oria eta Usurbilgo lurretan dagoen lantokia. Baina berregituraketa plan horrek, lantoki hauxe kaltetuko du nagusiki. Sindikatuetakordez kariak enpresako zuzendaritzarekin bildu ziren urriaren 10ean, egoerari buelta emateko irtenbiderik egokiena aurkitu nahian. Han iragarri zuen Michelinek 530 lanpostu murriztuko zituela, hasiera batean iragarritakoak baino gehiago.

530 LANPOSTU GALDUKO DIRA

“366 langileri aurrejubilazioa emateko asmoa du enpresak, beste 164 lanposturekin zer gertatuko den ez dago argi”

530 lanpostu kentzeko asmoa iragarri du multinazionalak. 366 langileri



MICHELINGO LANGILEAK PRENTSAURREKIDAN. LARUNBAT HONETAN LASARTEN EGINGO DEN MANIFESTAZIOA ARRATSALDEKO 18:00ETAN ABIATUKO DA.

aurrejubilazioa emateko asmoa agertu du enpresak, baina beste 164 lanposturekin zer gertatuko den ez dago argi oraindik.

Urriaren 18an berriz biltzekoak ziren enpresa batzordea eta Michelingo zuzendaritza. Han hitz egitekoak ziren 530 langile horien geroaz. Hau da, aurre erretiroak noiz hartuko dituzten

eta gaur egun aldi baterakoak direnek zein baldintzatan aritu beharko duten etorkizunean. Bien bitartean, Enpresa Batzordeak larunbat honetan egingo den manifestaziora joateko deia egin du. Arratsaldeko 18:00etan abiatuko da Lasarte-Oriako Okendo plazatik.

IMANOL UBEDA _____

Plantila erdira murriztuko litzateke

Michelinek izan duen "komunikazio politika" kritikatu dute langile batzordean gehiengoak duten LAB, ELA eta ESK-ko ordezkariak. Murrizketa 400 lanpostukoa izango zela iragarri zuten lehenik, baina urriaren 10ean 530 lanpostu direla murriztu nahi dituenak azaldu ziren Michelinek sindikatuei.

Michelingo langile batzordean 7 ordezkari ditu CCOOK; 6 LABek; 4 ELAk; 3 UGTk eta 2 ESK-k.

Lantegiaren hedadura murriztu nahi du Michelinek

Lanpostu murrizketarekin batera, lantegiaren hedadura murrizteko asmoa agertu du Michelinek. Erabaki horren atzean lurrarekin espekulatze asmoa egon daitekeela uste dute sindikatuek, eta hori eragozteko, lur horien kalifikazio aldaketa galarazteko eskatuko diete langileek Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalei. Eskara egiteko mozioa aurkeztu dute Usurbilen LABek, ELAk eta ESK-k.

Ostiral honetan, ezohiko udalbatza plenoa

Ostiral honetan, arratsaldeko 18:00etan, Usurbilgo udalbatza plenoaren ezohiko bilkura egingo da. Bi gai dira landuko direnak:

- 1.- EAE/ANVk aurkezturiko proposamena: azken atxilotetak direla eta udalaren gaitzespena agertzea.
- 2.- Michelingo Enpresa Batzordeak aurkezturiko proposamena: Michelin enpresako langileek bizi duten egoeraren aurrean udalaren atxikimendua agertzea.

Larunbat arratsaldean, Zubietan, makrokartzela proiektuari buruzko hitzaldia

Zubietako Herri Batzarrak antolatuta, makrokartzela proiektuari buruzko hitzaldia eskainiko dute Cesar Manzanosek (Salhaketa) eta Mikel Goenagak (presoekin lan egiten duen apaiza). Urriaren 20an, larunbata jarri dute hitzordua. 18:00etan hasiko da Zubietako frontoi atzeko lokalean.

Cesar Manzanos Salhaketako kidea eta presoekin lanean diharduen apaiz Mikel Goenagak gaiaren nondik norakoei buruz hitz egingo dute Zubietako frontoi atzeko lokalean, arratsaldeko 18:00etan hasita. Besteak

beste, egungo espetxe politikaren edota espetxe eta bertako presoen egoera zertan diren azalduko dute. Horren aurrean, espetxe politika egoki batek nolakoa behar lukeen ere deskribatuko dute.

Talde aurkezpena

Baina hitzaldia bera, azalpenak ematetik harago doa. Aurkezpen ekitaldi ere izango baita tartean. Erraustegiarekin batera, Zubietan eraiki eta kokatzeko asmoa duten makrokartzelaren aurka, talde berribat aurkeztuko baita jendaurrean hitzaldi saioan bertan.



CESAR MANZANOS, SALHAKETAKO KIDEA IZANGO DA HIZLARIETAKO BAT.

Ostiral honetan Sutegin, Nikaraguako emakumeen egoera eta politika hizpide

Nikaraguako emakumeek bizi duten egoera, ukatzen zaizkien eskubideak eta bertako egoera politikoa hizpide izango dituzte Sutegin, ostiral honetan urriaren 19an 19:00etan eskainiko den hitzaldian. Usurbilgo Elkartasun Taldeak eta Mundubatek antolatuta, Masayako Emakume Taldeko kide Maria Eugenia Delgadillo arituko da hizlari lanetan.

Emakumeen giza eskubideak urratuak dira Nikaraguan. Abortu terapeutikoa, eta emakumeen sexu eta amatasun eskubideak ez dira errespetatzen. Eta ondorioak latzak dira. Berrehundik gora umezurtz, hil diren emakumeengatik. Eliza Katolikoak aurkako jarrera aktiboa du. Alderdi politikoak botoak lortzen kezkatuagoak daude, egoera hauei konponbide bat aurkitzen baino. Horixe da bertako

emakumeen mugimenduak salatzen duena. Horren aurrean hainbat ekimen abiarazi dituzte. Bizitakoaren eta egindakoaren berri emango du Maria Eugenia Delgadillo Masayako Emakumeen Taldeko kideak ostiral honetan Sutegin.

Egoera aldatzea ez dela erraza izango dio. "Herrialdean ez dago oposizioarik", salatu du. Horren guztiaren aurrean, bi lan ildo jorratu ditu emakumeen mugimenduak; herritarrei informatu eta eragitea. Hainbat prentsaurreko eskaini dituzte, baina baita hainbat protesta ekintza egin ere; horien artean, Managuako Katedralean egindakoa. "Apaizen jarrera gure aurkakoa zen erabat", gogoratzen du Delgadillok. Aipatu erakundeak gai hauetan ez lukeela sartu behar gogorazi du.

Alor honetan dauden eskubide urraketak ikusgarri egin nahi dituzte gizar-

te mailan eta baita komunikabideetan ere.

Nikaraguako emakumeen egoerari buruzko azalpenak, irudiekin tartekatuko ditu Sutegin. "Ekimenari elkartasuna adieraztea eta herritarrek dituzten zalantzak argitzea nahiko genuke", adierazi du Delgadillok.

Ekimena indartzen

Afari batekin amaituko da Usurbilgo Elkartasun Taldeak eta Mundubatek antolatu duten hitzaldia. Hirugarren urtez prestatu dute nazioarteko herrialde bati buruzko astea; Sahara eta Palestina izan ziren aukeratutako beste herrialdeak. Bordaberriko parkea internazionalismoaren erreferentzia bilakatzea litzateke haien asmoetako bat eta ekimena urtetik urtera indartzen joatea. "Gogo handiz gaude. Inor interesatua balego, gugana jo dezala", adierazi du Jose Piñasek.

Lanbide Eskola ezagutzera etorri dira txiletar agintariak

Txileko Hezkuntza Ministeritzako 12 ordezkari Usurbilgo Lanbide Eskolan izan dira. "Chile educa" batzordeko kideei harrera egin zion Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendaritzak. Urriaren 4an izan ziren gure artean.

Heziketa Zikloetako instalazioak bisitatu zituzten, horrela, Administraritzako Enpresa Simulatua, Mekanika, Elektrizitate zein Mantenuko tailer ezberdinetan eta baita Energi Berriztagarrien Gunea ezagutzeko aukera paregabea izan zuten.

Txiletarrentzat, eredugarri

Oso inpresio ona hartu zuten txiletar agintariak, Usurbilgo eskolaren hainbat eredu Txilera eramateko aukeraz ere jardun zuten, baita Txileko hainbat ikaslek gure eskolan ikasteko aukeraz ere.



URRIAREN 4AN IZAN ZIREN TXILEKO HEZKUNTZA MINISTERITZAKOAK USURBILGO LANBIDE ESKOLA BISITATZEN.

Usurbilgo Lanbide Eskolak atek zabaldu dizkie, beraz, Txileko ikasleei, hala nola, hango hezkuntza behar zehatzei erantzuteko prest azaldu dira Usurbilgo eskolako zuzendaritzako

kideak.

Bertako hezkuntza eskaintza azaltzeaz gain, txiletar agintariekin iritziak elkar trukatzeko aukera izan zuten.

Igandean, Añana-Gesaltzara irteera

Izanak ematen dio herriari izena. Gatz kontuengatik ezaguna baita Añana-Gesaltza Araban, herrialdeko hiribildurik zaharrena. Diotenez, X. menderako ba omen zeuden aipatutako gatzagak. Muino batean kokatua dago herri gunetik eta haren magalean bertakoen jardueren ardatz izan den gatz ekoizpena. Baina produzitu bakarrik ez, merkaturatzeagatik Penintsula iparraldeko herriak aberatsenetakoan ere bilakatu baitzen herria.

Orain, Nafartarrak Kultur Taldeak urriaren 21ean paraje hura ezagutzeko irteera antolatu du. Gatzagak nola funtzionatzen duen ezagutu ahal izango da. Handik gertu dagoen Arreoko Caicedo urmaela bisitatzeko aukera ere eskainiko da. Biodibertsitate handiko gunea da; besteak beste, uretako hegaztiak eta landaredi berezia dago bertan. Izen ematea honako telefono zenbakian: 665 746 158. Irteera ordua goizeko zortzietan jarri dute, frontoi atzean.



IZENA EMATEKO TELEFONO ZENBAKI HONETARA DEITU: 665 746 158.

URDAINTZI S.L.
Oraindik
41-53 31 24
41-53 31 25
41-53 31 26

JOSUE
ARANZAZISTROKI
IGELTSERITZA
eta
PINTURA
Juan Jose enca. 6 Kalegar
Telf: 606 57 81 05

Auzo Lagun
ERKOP

ESKOLA ETA IKASTOLA
EZBERDINETARAKO
BEGIRALEAK BEHAR DITUGU

* Euskara beharrezkoa da.
* Egunean 3-4 ordu.
* Kurrikuluma:

rrhh.ure@auzolagun.com

Autorik Gabeko Egunean, bizikleta nagusi

Irailaren 28an, Autorik Gabeko Eguna zela eta, hainbat ekitaldi antolatu ziren Usurbilen.

Goizez, Udarregi ikastolako ikasleok bizikleta txangoa eduki genuen. Hemen aipatzekoa da, geroz eta parte hartze gutxiago dagoela bizikleta txangoan, batez ere urtez urte nesken parte hartzea beheraka doa. Honetaz aparte, buruko kaskoaren erabilera murriztu egin da eta hori kezagarria iruditzen zaigu.

Arratsaldez berriz, DBH 4ko ikasleak udalak antolatutako txokolatada eta buruhandietan giro paregabea jarri zuten Usurbilgo kaleetan. Ekitaldi hauetaz gainera, arratsalde osoan puzgarriak egon ziren frontoi atzean, musikaz alaiturik. Eguna amaitzeko, herriko frontoian bi bizikleta zozketatu ziren.

Egun polita izan bazen ere, gogoan eduki behar dugu, kutsaduraren aurkako festa bat dela eta Autorik Gabeko Eguna bada ere, herriko kaleetan inoiz baino zabor gehiago geratu zela. Ea hurrengo urtean hau hobetzeko gai garen!

DBH 4ko ikasleak



DBH-KO IKASLEEK AUTORIK GABEKO EGUNEAN.

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaia.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askok dugu esateko. Baina zure laguntza ere premia da.

Bazkide egin zaitez!



36 euro urte osorako

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Telefona: _____
E-posta: _____
Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Buruntzaldeko ibilbideak ezagutzeko aukera

Urriaren 28an Buruntzaldeko ibilbideen eguna ospatuko da. Lehen aldiz antolatu dute honelako ekintza bat Buruntzaldeko udalek eta kirol patronatuek Andatza, Euskalduna eta Mendiriz Mendi elkarteekin laguntzaz; eta Buruntzaldean moldatu dituzten ibilbide desberdinak ezagutaraztea da egitasmo honen helburu nagusia.

Urte batzuk pasa dira Buruntzaldeko ibilbide desberdinak berreskuratu nahian lanean hasi zirenetik. Aurrez zeuden herri bideak hartu eta eskualde honetako herriak ibilbide desberdinez biltzen saiatu dira. Lehendabizi zeuden bideak bultzatu eta horrek berriak ekarriko dituen itxaropenean gauzatu dute proiektu hau.

IBILALDIA

“Urriaren 28an egingo den irteeran, Buruntzaldeko ibilbide desberdinak ezagutzeko aukera izango da”

Azken finean, ia 50 kilometro bidezidore eta bide daude, landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, base-

liza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz.

Herrietan ibilbide-zati bakoitzaren inguruko trazatuak, profilak eta distantziak erakusten dituzten panelak daude, eta bideetan, berriz, norabideak eta distantziak markatzen dituzten geziak eta zuinak. Seinale horiek guztiak udalerriko bakoitzaren identifikazio-koloreak aintzat hartuz ipinita daude; hala, seinale bat bidean ikusten dugunean ibilbidearen zein zatitan gauden jakingo dugu.

Ibilaldia, goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00etara

Buruntzaldeko ibilbideen egunarekin ibilbide guzti horiek ezagutarazi nahi dituzte. Goizeko 9.00etatik 14.00ak bitartean ibilbide desberdinak egiteko aukera izango da. Herri bakoitzean kontrolgune bat egongo da, argibideak eman eta mokaduak eta edatekoak banatzeko. Usurbilen Santuenean, Zorrotzako zubiaren parean, egongo da, udaletxe atzean Hernanin, udaletxe azpian Urnieta eta Andoainen eta San Pedro elizaren atzealdean Lasarte-Orian.

Abiatzen den bakoitzari txartel bat emango zaio, abiatzen den lekuko zigiluarekin; hiru zigilu ezberdinekin, kamiseta bat emango zaio (salbuespena:



INGURUKO IBILBIDEAK
EZAGUTARAZI NAHI DIRA.

Andoain-Usurbil egiten dutenei bi zigilurekin nahikotzat emango zaie).

Bukaeran, autobusa

Bukaeran autobusa izango da, jasotako txartelarekin, abiatutako herrira itzultzeko. Usurbil (udaletxe aurrean), Lasarte-Oria (Atsobakarren), Andoain (Txistokin), Urnieta (Kiosko geltokian), Hernani (Atsegindegian) eta Lasarte-Oria (Atsobakarren) izango da autobusaren ibilbidea eta 12.00etan, 13.00etan eta 14.00etan irtengo da autobusa Usurbildik 10 minutuko tartean geltoki bakoitzean geldialdia egingo duelarik.

Aurten Usurbilgo kirol patronatuak du egun hau antolatzeko ardura nagusia eta urtez urte herri desberdinek hartu beharko dute ardura hori.

JOSU ARANBERRI

Hiru eskubaloitako partida Oiarde kiroldegian

Usurbil Kirol Elkarteko jubenil mailako bi taldeek eta 1. Territorial mailako taldeak etxeko partidak izango dituzte asteburu honetan. Seniorrek Urola Super BMren aurka jokatuko dute eta jubenil mailako bi taldeek Zarautzko taldeak izango dituzte aurrez aurre Oiarde kiroldegian. 2. Territorial mailako taldeak estreineko neurketa jokatuko du Oñatin Aloña Mendiren aurka, kade-te mutilak Mutrikura doaz Jaujaren aurka jokatzea eta neskak Bera Bera izango dute aurrez aurre Bidebietan.

Bi futbol partida Haraneko zelaian

Asteburu honetan bi futbol partidak jokatuko dira Haraneko zelaian. Larunbatean jokatuko du arratsaldeko 16.00etan Emakumezkoen ligako taldeak Tolosaren aurka. Igandean, berriz, 2. Errejonial mailako taldearen txanda izango da. 17.00etan hasita Kostkas-Miren Bihotza taldearen aurka neuruko dituzte indarrak. Beste bi taldeek etxetik kanpo jokatuko dute; Dunboa-Eguzkiren aurka 1. Errejonial mailako taldeak eta Sanseren aurka kadeteek.

Endika Abrilen finalerdian da Zubietak

Zubietak Pilota Elkartek Endika Abrileko errebote txapelketako finalerdia jokatuko du igandean Oiardeko errebote plazan 11.00etan hasita. Donibane Lohitzuneko Luzaz Gazte taldea izango dute aurrez aurre eta irabazten duenak Uztaritzeko Kapito Harriren aurka jokatuko du finala. Zubietarrek Oiardeko Oiarpe taldearen aurka 3 joko egitea nahikoa zuten finalerdietara sailkatzeko eta 13 eta 7 galdu bazuten ere txapelketan aurrera egin dute.

Autobus Orduetgia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orle	Zarautz	Zarautz	Orle	Usurbil	Urbil	Donostia
07:40	>>	08:05	08:15	08:25	06:45	06:55	07:05	>>	07:30
08:10	>>	08:35	08:45		07:15	07:25	07:35	>>	08:00
08:40	>>	09:05	09:15	09:25	07:45	07:55	08:05	>>	08:30
09:10	09:30	09:35	09:45		08:15	08:25	08:35	>>	09:00
09:40	>>	10:05	10:15	10:25	08:45	08:55	09:05	>>	09:30
10:40	>>	11:05	11:15	11:25		09:30	09:40	09:50	10:10
11:40	>>	12:05	12:15	12:25	09:45	09:55	10:05	>>	10:30
12:10	12:30	12:35	12:45			10:30	10:40	10:45	11:10
12:40	>>	13:05	13:15	13:25	10:45	10:55	11:05	>>	11:30
13:10	13:30	13:35	13:45		11:45	11:55	12:05	>>	12:30
13:40	>>	14:05	14:15	14:25	12:45	12:55	13:05	>>	13:30
14:10	14:30	14:35	14:45			13:30	13:40	13:45	14:10
14:40	>>	15:05	15:15	15:25	13:45	13:55	14:05	>>	14:30
15:10	15:30	15:35	15:45			14:30	14:40	14:45	15:10
15:40	>>	16:05	16:15	16:25	14:45	14:55	15:05	>>	15:30
16:40	>>	17:05	17:15	17:25		15:30	15:40	15:45	16:10
17:40	>>	18:05	18:15	18:25	15:45	15:55	16:05	>>	16:30
18:10	18:30	18:35	18:45			16:30	16:40	16:45	17:10
18:40	>>	19:05	19:15	19:25	16:45	16:55	17:05	>>	17:30
19:10	19:30	19:35	19:45			17:45	17:55	18:05	18:30
19:40	>>	20:05	20:15	20:25	18:45	18:55	19:05	>>	19:30
20:15	20:35	20:40	20:50	21:00		19:30	19:40	19:45	20:10
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	>>	20:30
22:15	22:35	22:40	22:50	23:05	20:45	20:55	21:05	21:10	21:30
					21:15	21:25	21:35	21:40	22:00

00:00 Astelehenetik Orle

00:00 Astelehenetik Orle

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orle	Zarautz	Zarautz	Orle	Usurbil	Urbil	Donostia
00:00	00:20	00:25	00:35	00:45	06:45	06:55	07:05	07:10	07:30
00:00	00:20	00:25	00:35	00:45	07:45	07:55	08:05	08:15	08:40
10:00	10:20	10:25	10:35	10:45	08:45	08:55	09:05	09:15	09:40
11:00	11:20	11:25	11:35	11:45	09:45	09:55	10:05	10:15	10:40
12:00	12:20	12:25	12:35	12:45	10:45	10:55	11:05	11:15	11:40
13:00	13:20	13:25	13:35	13:45	11:45	11:55	12:05	12:15	12:40
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45	12:45	12:55	13:05	13:15	13:40
15:00	15:20	15:25	15:35	15:45	13:45	13:55	14:05	14:15	14:40
16:00	16:20	16:25	16:35	16:45	14:45	14:55	15:05	15:15	15:40
17:00	17:20	17:25	17:35	17:45	15:45	15:55	16:05	16:15	16:40
18:00	18:20	18:25	18:35	18:45	16:45	16:55	17:05	17:15	17:40
19:00	19:20	19:25	19:35	19:45	17:45	17:55	18:05	18:15	18:40
20:00	20:20	20:25	20:35	20:45	18:45	18:55	19:05	19:15	19:40
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	20:15	20:40
22:00	22:20	22:25	22:35	22:45	20:45	20:55	21:05	21:15	21:40
22:30	22:50	22:55	23:05	23:15	21:45	21:55	22:05	22:15	22:40

LARUNBAT GAUTAN

00:00	>>	00:25	00:35	00:45
01:00	>>	01:25	01:35	01:45
02:00	>>	02:25	02:35	02:45
04:00	>>	04:25	04:35	04:45
05:00	>>	05:25	05:35	05:45
06:00	>>	06:25	06:35	06:45

LARUNBAT GAUTAN

23:15	23:25	23:35	>>	00:00
00:15	00:25	00:35	>>	01:00
01:15	01:25	01:35	>>	02:00
02:15	02:25	02:35	>>	03:00
03:15	03:25	03:35	>>	04:00
04:15	04:25	04:35	>>	05:00
05:15	05:25	05:35	>>	06:00

00:00 Inoioa 00:00 00:00 00:00

00:00 Inoioa 00:00 00:00 00:00

00:00 Inoioa 00:00 00:00 00:00

Zarautz	Orle	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orle	Zarautz
06:00	06:15	06:24	06:39	06:47	06:03	06:14	06:30
06:30	06:45	06:54	07:09	07:17	06:33	06:44	07:00
07:00	07:15	07:24	07:39	07:47	07:03	07:14	07:30
07:30	07:45	07:54	08:09	08:17	07:33	07:44	08:00
08:00	08:15	08:24	08:39	08:47	08:03	08:14	08:30
08:30	08:45	08:54	09:09	09:17	08:33	08:44	09:00
09:00	09:15	09:24	09:39	09:47	09:03	09:14	09:30
10:00	10:15	10:24	10:39	10:47	10:03	10:14	10:30
11:00	11:15	11:24	11:39	11:47	11:03	11:14	11:30
12:00	12:15	12:24	12:39	12:47	12:03	12:14	12:30
12:30	12:45	12:54	13:09	13:17	12:33	12:44	13:00
13:00	13:15	13:24	13:39	13:47	13:03	13:14	13:30
13:30	13:45	13:54	14:09	14:17	13:33	13:44	14:00
14:00	14:15	14:24	14:39	14:47	14:03	14:14	14:30
14:30	14:45	14:54	15:09	15:17	14:33	14:44	15:00
15:00	15:15	15:24	15:39	15:47	15:03	15:14	15:30
15:30	15:45	15:54	16:09	16:17	15:33	15:44	16:00
16:00	16:15	16:24	16:39	16:47	16:03	16:14	16:30
16:30	16:45	16:54	17:09	17:17	16:33	16:44	17:00
17:00	17:15	17:24	17:39	17:47	17:03	17:14	17:30
17:30	17:45	17:54	18:09	18:17	17:33	17:44	18:00
18:00	18:15	18:24	18:39	18:47	18:03	18:14	18:30
18:30	18:45	18:54	19:09	19:17	18:33	18:44	19:00
19:00	19:15	19:24	19:39	19:47	19:03	19:14	19:30
19:30	19:45	19:54	20:09	20:17	19:33	19:44	20:00
20:00	20:15	20:24	20:39	20:47	20:03	20:14	20:30
21:00	21:15	21:24	21:39	21:47	21:03	21:14	21:30
22:00	22:15	22:24	22:39	22:47	22:03	22:14	22:30
22:30	22:45	22:54	23:09				

00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN 00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Bizkaia eremuko bilerak 902 54 32 10 www.euskotren.es eifflanta@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Urriak 18, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 19, ostirala
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Urriak 20, larunbata
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Urriak 21, igandea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 22, astelehena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Urriak 23, asteartea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Urriak 24, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 25, osteguna
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 26, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Urriak 27, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil

Urriak 28, igandea
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxeeste Farmazia
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87
(gaueko guardia 22:00etatik 09:00ak arte)

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia
TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)

7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !

Urriak 19 ostirala

- 18:00etan ezohiko udalbatza plenoa udaletxean.

- Nikaraguar buruzko hitzaldia, 19:00etan Sutegin. Antolatzaileak: Usurbilgo Elkartasun Taldea eta Mundubat. Hizlaria: Maria Eugenia Delgadillo (Colectivo de Mujeres de Masayako kidea). Sarrera, doan.

Urriak 20 larunbata

- 18:00etan hitzaldia Zubietako frontoi ondoko lokalean. Gaia: makrokartzelaren proiektua. Hizlariak: Cesar Manzanos (Salhaketa), Mikel Goenaga (apaiza).

- 18:00etan manifestazioa Lasarten, Michelingo Enpresa Batzordeak deituta. Okendo plazatik abiatuta.

- 20:00etan Oihana Lizasori omenaldia eta ondoren afaria Usurbilgo frontoian.

KzGuneko ikastaroak

Urriak 18 osteguna

- Fagor gida gastronomikoa.

Ordutegia: 9:00-10:00.

- Via Michelinekin bidaiatu.

Ordutegia: 10:00-11:00.

Urriak 24 asteazkena

- Adobe Acrobat Reader

(gazteleraz). Ordutegia: 9:00-11:00.

Urriak 24 asteazkena

- Prestatu zure ekipoa.

Ordutegia: 11:00-13:00.

It Txartela azterketak

Urriak 17, 26, 29 (9:00-11:00).

KzGunea urrian, 9:00-13:00.

Kale Nagusia, 37. Tel: 943 36 14 12.

1955ean jaiotakoen ospakizuna, urriaren 20an

Urriaren 20an Antxeta jatetxean. Izena emateko: Karmele, 943 364631 / Rosario, 666 916000.

Oihana Lizasoren omenaldia larunbat honetan izango da

Irailaren 28an ailegatu zen Usurbila, bost urtez preso, herritik urrun igaro ondoren. Egun horretan bertan ongi etorri beroa jaso zuen Oihana Lizasok. Bera iristerako, Oxtape inguruan herritar askok itxaroten zion. Gerora, han bildutako denak manifestaldian abiatu ziren Aitzaga pareraino. Bertan, Oihanak bere argazkia kendu zuen txalo artean. Ongi etorri ekitaldia, Txiribogan amaitu zen lunch batekin. Larunbat honetan jasoko du herritarren omenaldia.

Hasiera batean, urriaren 6an jaso behar zuen omenaldia. Afarirako txartelak ere saldu ziren. Baina urriaren 4an Marisa Alejandro usurbildarra atxilotu zuten Seguran, Batasunako 22 kideekin batera. Horregatik, Oihana Lizasori egin beharreko omenaldia atzeratzea erabaki zuen Usurbilgo Ezker Abertzaleak.



ARRATSALDEKO 20:00ETAN HASIKO DA OMENALDIA. ARGAZKIA: JAIKI.ORG

Omenaldi hori, azkenean, larunbat honetan egingo da. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da, Usurbilgo frontoian. Omenaldi ekitaldia eta gero, herri afarian parte hartzeko aukera izango da. Urriaren 6rako saldu ziren txartelak baliagarri izango dira.

Hiru atxilotu, Ugarte baserrian lapurtzen ari zirelakoan

Lehengo asteko asteazkenean, Ertzaintzak hiru lagun atxilotu zituen, Ugarte baserrian lapurtzen ari zirelakoan. Antzeko delituengatik aurrekariak zituzten atxilotutako bik.

Ertzaintzak 49, 26 eta 17 urteko hiru lagun atxilotu zituen lehengo astean, Ugarte baserrian lapurretan ari zirelakoan. Arratsaldeko 16:00ak aldean, udaltzaingoak abisua eman zien ertzainei, baserri baten barruan hainbat lagun zeudela esanaz. Ertzaintzaren arabera, metalezko hainbat hodi eta iturri bilduta zituzten atxilotuek, lapurtzeko. Jabetzaren



ERTZAINTZAREN ESANETAN, METALEZKO GAUZAK BILDUTA ZITUZTEN, LAPURTZEKO.

aurkako delituengatik aurrekariak zituzten atxilotutako bik, Ertzaintzak gehitu zuenez. Gaur egun, inor ez da baserrian bertan bizi.

ETXEBIZITZA

- Usurbilen 2 logelako etxe bat daukagu alokatzeko. 620565731.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Hiru logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Garaje itxi bat alokatzen dut Artzabalén. 647 120 253.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Txiriboga tabernan sukaldari bat behar dugu ostegunetik igandera aritzeko. Interesatuak pasa daitezela tabernatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailetik aurrera hasteko. 627278907.
 - Benta tabernan lan egin nahi baduzu deitu: 685 757 962.
 - Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zer-

bitzari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Fisikako ikaslea, uda honetan matematika eta fisikako klaseak emateko prest. 943 37 12 77 / 685 772 602 (Nerea).
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motarako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jatetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak

zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Ingelera emango duen irakasle bat behar da Zubietan, asteen behin edo bitan klaseak emateko. 943 36 07 59 (Pello).
- Zilar edo urre zuriko lepoko bat topatu genuen uda partean eta udaltzaingoan utzi dugu. Galdu duenak han galde dezake.
- Irailaren 17an betaurreko graduatuak galdu genituen. 650 947 142.
- Pottoka salgai, kalifikatua eta subentzioa jasotzen ari dena. 626 220925.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Añamendi enziklopediaren 80 tomo dauzkat salgai: 635733984.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa, aurreko eserlekuak birikariak, dena hornitua, ASR... 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fizioeekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ apore@euskalnet.net

JAIOTZAK

Unax Urdampilleta Murugarren,
urriaren 8an.

Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txiki-rako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, honako telefono zenbakira deitu bulego orduetan: 943 360 321. E-postaz igorri datuak honako helbidera: erredakzioa@noaua.com

HILDAKOAK

M.^a Luisa San Sebastian Eizagirre
Urriaren 8an hil zen
Aginagan.



HILDAKOAK

Jose Mari Sarasola Alkorta
Urriaren 10ean hil zen
Kaleberrin.



ANTXETA
taberna-jatetxea

egitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Argentinan ospatu den Euskal Astean izan dira Zumarte Musika Eskolakoak

Intentsitate handiko egunak bizi izan dituzte Argentinako Rosario hirian urria hasieran ospatu zen Euskal Astean parte hartu zutenek; inguru haietan bizi diren jatorri euskalduneko herritarrek eta baita Euskal Herriatik egun batzuetarako hara joandakoek ere. Tartean zen Zumarteko talde bat.

“Hainbeste kilometro eginda ez da horrelakorik espero”, adierazi du trikitilari Juan Tapiak. Duela bost urte izan zen lehen aldiz Argentinan ospatu ohi den Euskal Astea. Oraingo bidaia hau ere ahaztezina izango da beretzat eta harekin batera Rosarion izan diren Zumarteko gainerako kideentzat ere; Iker Muguruza (bateria), Xabier Tapia, (eskusoinu handia), Garbiñe Latienda (gitarra, ahotsa eta panderoa), Aitor Bautista, Araitx Larrea eta Roman Manterolarentzat (txistulariak).

JUAN TAPIA

“Harritu egin nintzen. Jotzen hasi eta soinuari hotsa atera bezain pronto denak dantzan. Eta ondo gainera”

Astebetez, euskal kulturarekin lotutako ekitaldi mordoa egon zen; dantza edota musika emanaldiak, hitzaldiak...

Atsedenaarako tarte gutxi

Zumartekoak musika emanaldia eskaintzera joan ziren bertara. Guztira hiru egunez egon ziren bertan, egin nahi zutenerako denbora justua edo nahi bestekoa izan gabe. Emanaldien entsegu saioak edota kontzertuak zirela, bertako lagunak ezagutu edota agurtu behar zirela... “Azken egunean lo orduen batz bestekoa kalkulatu genuen; bi ordukoa zen”, gogorarazi du Iker Muguruzak.



ITSASOZ BI ALDEETAKO EUSKALDUNAK BILDU ZIREN ETA, BATEZ ERE, HAIEK HEMENGO BERRI IZATEKO GOGOIA ZUTEN.

Emozioa, esker hitzak, goraintziak...

Oso une hunkigarriak bizi izan zituzten, Rosarioko antzoki bateko oholtza gainera igo zirenean. Bertako dantzari talde batekin emanaldia eskaini zuten. Gure artean, erromeriek eta plaza giroak, leku batzuen salbuespenarekin, jende gutxiago erakartzen duten artean, hemendik milaka kilometrora oso besrelakoa da euskal musikari lotutako ekitaldiek duten harrera. “Harritu nintzen. Jotzen hasi eta soinuari hotsa atera bezain pronto denak dantzan. Eta ondo gainera”, adierazi du Tapiak. Izugarria zela zioten, Euskal Herriatik urrun egon zitezkeela ahazterainokoa.

Kontzertu ostean berriz, besarkada, oroitzapen eta eskerrak emateko ordua zen. Itsasoz bi aldeetako euskaldunak bildu eta batez ere, haiek hemengo berri izateko gogoia zuten. “Andre bat etorri zen, asteasuarra, haiekin argazkia ateratzeko eskatzera. Ia berriz noiz joango garen eta hemengo jendeari goraintziak emateko esaten zidaten”, adierazi du Tapiak.

“Hurrengo urterako ere gonbidatu gaituzte”

Bertakoak hain gustura gelditu diren adierazgarri nagusia, jada hurrengo edizioan pentsatzen ari direla da. “Hurrengo urterako gonbidatu gaituzte jada”, adierazi du Muguruzak. Oraindik ziurtatu gabe badago ere, 2008ko Euskal Astea La Platan ospatzeko asmoa omen dute.



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKOEN DROITZAPEN EDERRAK EKARRI DITUZTE ARGENTINATIK.

